

# ✿ Hitz eta Pitz ✿

## Gustavo Martín Garzo

«Mendeurrenen inguruko zaratak ez ditu Andersen eta Cervantes azpiratuko: handiegiak dira.»



Gustavo Martín Garzo (Valladolid, 1948) idazle ezaguna da. Harenak dira *El lenguaje de las fuentes* (Espainiako Sari Nazionala, 1994) edo *Maitagarrien hiru ipuin* (Espainiako Haur Literaturako Sari Nazionala, 2004), oraintsu Juan Kruz Igerabidek euskaratu eta Elena Odriozolak ilustratu duen liburua. Tartean, hainbat nobela, hainbat artikulu erakargarri. Eta sari gehiago. Eta Gustavo Martín Garzo gurean are ezagunago izan dadin egin diogu elkarrizketa hau, berak Behinolaki-deontzat atsegin handiz eskaini duena.

PATXI ZUBIZARRETAk itzulita.

**L**iteraturari buruzko artikuluetan esan izan duzu ez dela komeni haurrei liburuen onurak eta abantailak gehiegi aipatzea, hobe dela liburuekin ez gogaitzea eta, are gehiago, ongi legokeela liburuak armairu handietan giltzapean gordetzea. Gure gizartean nagusi den irakurketaren aldeko apologia hori ez ote da gehiegizkoa, ez ote da axalekoa eta, azkenean, kaltegarria?

Ni baiezkotan nago eta pentsatzen dut haurrak etengabe irakurtzera bultzatu nahi izatea –eta, irakurriko ez balute, kasik infernuarekin zigortzea– haientzat gogaikarria dela. Liburuen munduarekin sentiberatasunaren, adimenaren eta gustu onaren parke tematiko halako bat egin dugu; noski, irakurtzen ez dutenak kanpoan geratzen dira, eta ez dut uste horrenbesterako denik. Nik, egia esan, ergel hutsak diren makina bat irakurle ezagutzen dut. Are gehiago, irakurtzen ez duten haurrak beti errukarriak iruditu izan zaizkit. Baina, ongi aztertuz gero, une honetan beharbada horietan dira guztietan literarioenak. Halako argumentuarekin ipuin bat idatz liteke. Ipuinen hizkera ulertzen ez duen haur bat. Ezin irakur ditzakeena eta, hala ere, zinezko abenturak bizi dituen. Egiaz, ipuinetako pertsonaia asko gabeziaren bat izan ohi dute. Ez dira mintzo, ezin dira ibili, xaloak dira, motelak, ez dute beren jatorria ezagutu ere egiten... Eta hain zuzen ere oinarrizko gabezia



horrek, izate ez-oso horrek istoriorik ederrenen protagonista bihurtzen ditu. Edo, bestela esatearren, gabezia horrek mundu honek dituen hutsuneekin harremanetan jartzen ditu, irrealtasun horren biztanle egiten ditu. *Baba magikoak* ipuinaren Jack pertsonaia bezala: bere inozentzia medio, bere burua «engainatzen» uzten du eta behia bost babaren truke salduko du; baina hauek magikoak baitira, erresuma bitxi batera eramango dute, non ogroak eta urrezko arrautzak erruten dituzten oiloak patxada osoan bizi baitira. Jack irakurtzen ikasten ez duten haur horietako bat izan liteke, baina, ipuinen ordain miresgarriak direla eta, dohainaren hartzaile suertatuko da. Psikologo gisara sarritan halako kasu askoren aurrean gertatu nintzen, haur dislexikoak kasu, eta zin egin diezazuket benetan tamalgarriak direla. Are gehiago gurea bezalako garai honetan, izan ere propagandak halako gorentasun ukitua eman baitio irakurketari. Irakurketa, baina, ez da hori. Irakurketa sinesberatasuna da, abenturaren desioa, bilaketa ezta. Jende asko, milaka saltzen diren liburuez zamaten da –ez naiz izenburuak

zerrendatzen hasiko–, eta beren burua irakurle handitzat du, baina denok ongitxo dakigu, jakin, irakurketa horrek ez diela arriskurik ez aldaketarik ekarriko, ez diela galderarik eragingo. Ipuinen mundua baba magiko horiek jasotzearekin lotua dago. Eta haur batek galdera bat egiten duenean, egiaz galdegin ere, jakin nahian, jakitate hori eskuratzearren arriskatzeko prest, mundu horren biztanle da. Nahiz eta gero zerbaitek liburuetatik urrunarazi, nahiz eta gero orrialderik irakurtzen asmatu ez.

Zer sentitzen duzu gurasoek esaten dizutenean alaba edo semea kasik liburujaleara dela? Besteen bizitzan lekuko izatea aski ote da, ala liburuak balekoak dira baldin eta geure bizitzan benetako protagonista izaten laguntzen badigute?

Geure bizitza propioen protagonista izatea, horixe da garrantzitsuena. Edo, bestela esatearren, benetako historia –hori dela eta gero epaituak izango gara– gure bizitzarekin idazten duguna da. Eta horretarako ongi dago liburuetakoa irakurketaz baliatzea, izan ere beste zenbait bizitza biltzen baitute, baina hori taxuz egin beharra dago, hau da, ipuinen munduak eskatzen duen erdi lilura erdi ardura horrekin. Literaturak, nire ustetan, amodioarekin du zerikusia, eta amodioa lilura da, kontu egitea, ahalegina..., eta, batik bat, poztasuna. Ezinezkoa dirudiena posible egitea, ahalgarritasunaren erresuma berreraikitzea, horra benetako poztasuna zer den.

Gurasoak irakurtzen ikustearen garrantzia nabarmendu izan duzu. Nolakoa zara zu irakurle gisara? Haur literaturako zein liburuk hunkitu zaituzte gehien, zeintzuk idatziko zenituzkeen, edota, zuk idatziak izan direla sentiarazten dizute?

Gakoa norberaren jokabidearekin erakustea da. Erakutsi gabe erakustea, irakurketa-liburuak naturalak izatea, hala nola zure ama bizkotxo bat egiten ikustea. Izan ere oso gogoan baitut nire ama irakurtzen ikusten nuenekoa. Haur batentzat,

nekez hori baino eszena miresgarri eta misterio-  
tsuagorik; pertsona kuttun hori liburuaren au-  
rrean bere baitara bildua ikusteak galdera dakar  
ezinbestean: zertan dabil benetan, zertan ote  
du benetan gogo? Liburuaren bitartez, barnera-  
tu egin gaitezke izaki kuttunen pentsamendu  
sekretuetan. San Joanek zioenez, pentsamendu  
bat mundua baino balio handiagokoa da, eta,  
nire ustetan, bizitzaren benetako misterioa pen-  
tsamenduetan dago. Eta badira pentsamenduen  
mundu hori arakutzen duten liburuak. Horien  
arte, bereziki, ipuin handiak. Grimm anaien  
ipuinak ditut gogoko, Andersenak, eta *Peter  
Pan*. Beste asko ere badira, noski, baina horiek  
funtsezko triunbiratu horretara garamatzate.  
Grimm anaiengan lilura eta jakingosea ageri  
dira, Andersenengan tristezia, Peter Panengan  
paradisua mina... Ipuinetan, esango nuke  
Sirenatxoa eta Wendy direla gehien maite dituan  
pertsonaiak. Amodioaren misterioa gorpuzteko  
Sirenatxoaren molde sotilagorik bai ote? Eta  
Wendy, zer esan nezake neskatila horretaz? Ni  
betidanik egon naiz Wendirekin maitemindu-  
rik eta uste dut Peter Pan zorionekoa izan zela  
haren alboan hegaldatzeko zorte ikaragarria izan  
zuelako. Egiaz, hurbiltasun horrek ekarri dio  
horren gogoangarri izatea. Neskatila hori gabe,  
psikopata txiki bat besterik ez litzateke izango.  
Haren alboan gertatzen zaizkionak axola zaizkigu  
eta, ez dezagun ahantz: ipuin kontalari bikaina  
Wendy dugu. Nik betidanik Peter Pan izan nahi  
nuen; ez, ordea, esan ohi den bezala, betiereko  
haurtzaroari eusteko, Wendyren gelako leihotik  
sartzeko baizik, izan ere bai bera bai Txintzarri  
baitira liburuaren giltzarri. Haren alboan hegal-  
datzearren nahi nuen Peter Pan izan...

Nolakoa zara zu idazle gisara? Nola ekiten diozu  
haur-gazte liburu bati, nola helduentzako lanari?  
Aldatzen al dituzu irizpideak?

Haurrentzako eta helduentzako nire liburu-  
tan ez dago alderik. Nago batzuentzat edo bes-

teentzat idaztea istorioaren araberako kontua  
dela. Horrek baino ez dio axola, idazleak gogoko  
izatea kontatu nahi duen istorioa. Istorio horretan  
maitagarriak, herensugeak, animaliekin mintzo  
diren pertsonak ageri badira, horrek beharbada  
haurrak ekarriko dizkit gogora, solaskide gisara,  
izan ere haiek ez baitute arazorik izango istorioa  
sinesteko. Horratx desberdintasun bakarra.

Narratzaile lanetan betidanik izan dudana  
bilaketa gardentasunarena izan da, ahalik eta  
gardenena izan nahia. Konplexua dena ahalik  
eta xumeen aditzera ematea dut helburu; beste  
kontu bat da nire liburuak haurrek edo helduek  
irakurtzea. Nago, bestalde, ipuinei komeni zaien  
idazketa inpersonala dela. Bakarren batek esana  
da literatur hitzak desinteresatuak direla. Hala  
bada, norberak idazten dituen hitzek ez dute  
halako eraginik sortu nahi, ez dute norberaren  
nortasuna hedatu nahi, eta norberarenak ez balira  
bezala erabili behar dira. Narratzailea ez da kon-  
tatzen ari denaren jabe, transmisore hutsa baizik.  
Esku batzuetatik zerbait hartu eta beste batzuetan  
ipini, horra bere lana. Logabetuek gauez elkarri  
ematen dioten lanparatxoa, horra benetan merezi  
duten ipuinen sinboloa.



Zure liburuetan bizitzaren gordina ez estaltzeko gogoia antzematen dugu, baina, aldi berean, halako irakurketa positiboa ageri da. «Baina bizitzak beti ezustekoak ematen dizkigu, gogor irauten badugu behintzat. Uste dugu ezin dela ezer aldatu, eta beti halaxe izango dela, ilun eta zail, eta bat-batean gauari argi pixka bat ateratzeko modua aurkitzen dugu, eta zorientasuna topatzen dugu oinaze artean.» Tolkienen gisara, zuk ere bizitza katastrofe edertzat hartzen ote duzu?

Bizitza abentura bitxi samarra da, baina aldi berean edertasunez betea. Haren enigma handiak oinazea eta poztasuna dira. Ezin da ukatu oinazearen presentzia, baina ezta poztasunarena, edertasunarena eta argiarena ere. Edertasun hori ere bitxia da, gero, eta salbamenaren ideia bereganatua du, eta hala ere badakigu ez garela salbatuak izango, zeren heriotza baitago gu denon zain. Nik, baina, ezin heriotza onartu. Ezin dut onartu naturala dela, ohitu beharra daukagula, matxinatu egiten naiz. Maite ditudan pertsonaia guztiak haren kontrako borrokan dabilta. *Loti ederra* ipuinaren mezua zera da, badagoela heriotzatik esnatzea, hau da, erlijio guztien mezu



berbera. Ipuin handi guztiek aditzera ematen digute bizitza dohain miresgarria dugula, ongi zaindu eta iraurarazi behar duguna. Denek ere esker ona dute hizpide, esker onekoak izan behar dugula dioskute. Edo, bestela esatearren, ibaien, zakurren, musikaren eta haurren existentzia eskertzeko. Hori guztia sakratua da eta inortxok ere ez du laidoztatzeko eskubiderik. Batzuk-batzuk, ez jakin zergatik, bizitzak dituen alderik onenekin haserre daude. Horrexegatik kontatu behar dizkiegu ipuinak hurrei, handitan haiek bezalakoak izan ez daitezten. Ipuinetan entzuten den ahotsa ardurarena da, ez heriotzarena. Beharbada horrexegatik nahi nuke, oroz gain, Jainkoarengan sinestea. Katolikotasuna atsegin dut, izan ere gurasoen eta nire haurtzaroko erlijioa izan baitzen. Atsegin dut Jainko pertsonalaren kontu hori, bekatuaren ideia, emakumearekiko, hurrekiko, animaliekiko errespetua, gizaki guztien funtsezko berdintasunaren sinesmen hori. Gizakia natura erori gisara agertzea, nola justifikatu, bestela, gaizkia? Sarraskitze esparruak, edo gizaki batek beste bati bizkarrera tiro egitea –herria edo ideiak defendatzen ari delakoan–, hori guztia deabruaren existentziak baino ezin argi lezake. Natura ama doilor gisara ez agertzea atsegin dut; eta, aitzitik, San Frantziskok zioen bezala, ahizpa edo arreba gisara agertzea, barrea eragiten eta dantzazten gaituen ahizpa saltsapresta bat. Sinesmena falta dut, baina, eta damu dut. Ipuinak maite dituztenak, izaki erlijiosoen antzera, haurtzaroa atzean uzten jakin izan ez dutenak dira. Baina, zergatik egin halakorik? C. S. Lewisek zioen fantastikotasunerako joera galtzea zera bezalako dela, urteen poderioz ilea edo gure hortzeriaren zatiren bat galtzea bezalako. Poza hartu beharko genuke haztearekin eta heztearekin batera irabazten duguna dela eta, ez galtzen duguna dela eta.

Zure obran nabaria da literatura tradizionalarekiko joera –printzesa besabakarrak edo gorrak, herensugeak, maitagarriak...–. Literatura mota

horrek, garaiotan, ba ote du gaurkotasunik? Nola berregiten duzu material hori guztia?

Intuitiboki egiten dut, azken batean izaki horiek niregan beti egon dira bizirik. Ez dut uste irudipenak direnik. Nonahi jaso dezakegu munduaren ederra eta, bai pertsonaia horiek bai istorioak, edertasun horren maila berean kokatzeko modua dira. Amodio literatura gorena sexu senetik sortzen den gisa berean, ipuin miresgarriak edozein espezieetako helduek umeak zaintzeko duten jatorrizko sen horretatik sortzen dira. Natura arduratu da ume horiek ederrak izan daitezen, hain zuzen ere gero guk babesteko eta miresteko gogoia izan dezagun. Ipuinak, batik bat, gurasoek horren seme-alaba ederrak izatearen harriduratik sortzen dira. «Ezin dizut edozein gauza kontatu», esaten diete, «ipuinak zure edertasunaren mailan egon beharra dauka». Kantuen Kanta halaxe idatzi zuten, eta horixe da haurrei kontatzen dizkiegun istorio miresgarri horien funtsezko arrazoia. Gurekin adi-adi dauden bitartean, haien aurpegi miresgarriak begiztatu ditzagun.



Oso gogoan dut –eta gogoko– zure *La princesa manca* nobelan egin zenuen keinu bat, hain zuzen ere Obaba eta basurde zuria zure orrialdeetara ekarriz. Bestalde, *Las historias de Marta y Fernando* nobelan kontatzen duzun maistraren istorioa Obabako iragan mitikoaren zati bat izan zitekeen: Leongo herrixka batean, maistra gazte bat harriduraz ohartu da eskolara gero eta ikasle gutxiago doakiola, kalean gero eta jende gutxiago ageri dela, eta laster jakingo du, ustekabea, etxeetan, ganbaretako kapirioetatik zintzilik, halako zaku lirdingatsuak daudela, eta herritarrek horietan hibernatzen dutela...; eta hain zuzen ere hori izango da amodio istorio bat zapuztuko duen arrazoia. Keinuak keinu, zure obrari ez al dario iraganarekiko halako nostalgia bat?

Bernardo Atxagaren obra eta, batik bat, Obabakoak, beti iruditu izan zait gure herrian idatzi den lanik ederrenetakoa. Eta bai, hala da, nire ipuinean liburu horrekiko omenaldi argia dago. Izan ere, betidanik izan ditut gustuko animaliak

eta gizakiak elkarbitzen agertzen diren historiak. Mitoak ere erresuma desberdinetan bizi eta elkarki ikustaldiak egiten dizkioten izakiz beterik daude. Neskatalak begiz jotzen dituzten animaliak, gizaki hilkor bat maite duten jainkoak... Oinarrizko lotura horiek aipatzen dituzten istorioak dira, bizitzaren jatorriaz mintzo direnak, galdu zen armonia gogora ekartzen digutenak. Esango nuke iraganarekiko baino gehiago, ezkutuan dagoenarekiko nostalgia dela, edo ikusten ez dakigunarekiko. Ikaragarria da, esaterako, animaliekin zer gertatzen ari den. Giza historian lehenengo aldiz, gizakiak bizkarra eman die, ez du haiengandik ezer espero, ezpada beren ibilaldi gastronomiko edo turistikoak osatzea. Gizaki hiritarrak ez daki animaliei begiratzen, eta baliteke nahi ere begiratu nahi ez izatea, hartara saihestu egiten baititu galdera korapilotsuak, hala nola zer egiten den animaliekin herrietako jaietan, ehizaldietan edo,

besterik gabe, sukaldeetan. Barazkizale izan nahi nuke, hain zuzen ere animaliarik sekula hil behar ez izateko. Baina, amigo, nola bizi urdaiazpiko tomateduna gabe, legatz on bat edo platerkada lanperna bat gabe? Egin, egin behar ote dut? Ez, bada, jakin baina. Ipuinetan ogoak ageri dira, eta argi dago haien helburua ez dela mugatzen haurrak beldurtzera, ezpada benetan zer garen azaltzeko, nahiz eta gustuko izan ez, hau da, gure izatean dagoen irensole asegaitez horren berri emateko. Chestertonek zioenez, ipuinak errealismo huts-hutsa dira. Horrexegatik, Don Beldur, ogoak eta halakoekin batera, badira izaki hegodun eztiak, inori kalterik ttikiena ere eragingo ez lioketenak. Hala bada, literatura segida amaigabe hori da, nortasun ugaritasun hori. Kontraesanak onartzen jakitea. Nago nortasunaren mundua bidaiaren mundua bezalakoa dela. Aukera eduki behar dugu gure memoriaren halako eta halako tokitara bidaiatzeko, baina horiek abandonatzeko eta aukera berrien bila partitzeko ere bai. Txarrena zera da: gauza bakar bat garela sinestea. Gizakia, egon, zatikiez osatua dago, eta derrigortua dago beti konbinaketa berriak bilatzera... Benetan aukera izanez gero, nork egingo lioke uko hegan egiteari?

Hizkerarekiko kezka ere nabaria da zure lanetan, halako estilo garden bat, baina ñabarduraz eta iradokizunaz betea. Hori ez al da gaur egun irakurle gaztearentzako oztopo? Ez al duzu ezintasunik sentitzen irakurle gaztearentzat idazteko orduan?

Ez dut horretaz pentsatzen; egiaz, ez dakit norentzat idazten dudan. Edo, hobeki esatearren, bai, badakit. Nire haur denboran, hizkuntza asmatuetan hitz egitea atsegin nuen. Haietan edozein gauza esan zenezakeela iruditzen zitzaizun, zurean ezinezkoa zen halako askatasun bat eskaintzen zizutela. Nahiz eta ez jakin oso ongi zer esaten ari zinen... Irudipena dut hizkera literarioa ere halakoxea dela, horren maite duzun askatasun hori ematen dizu, baina, funtsean, hizketan ari



zara zer diozun oso ongi jakin gabe... Beste molde batez esaten ari naiz hainbestetan esan izan den hori, alegia, hizkuntza gure bitartez mintzo dela. Eta, izan ere, baliatzen dugun hizkuntza hori lehenago beste gizaki batzuen jabegoa izan da (eta ez naiz hizkuntza partikularrez ari, gu denok batzen gaituen oinarrizko hizkuntzaz baizik, elkar ulertzea bideratzen duena, etengabe itzulgai dena). Horren bidez mintzatzea haiei mintzaten entzutea da, zure bitartez hori egitea. Esan nahi dut aditzera ematen duguna ez dela guztiz geurea. Shakespearek zioenez, amodioa gazteegia da kontzientzia izan dezan. Nago hizkuntza literarioak ere horrelakoa izan behar duela: ametsi ostutako hizkuntza, aukeran gazteegia zer esaten ari den jakin ahal izateko.

Mendeurren asko ospatzen ari garen honetan –Cervantes, Andersen, Verne–, zure izena idazle handi horienarekin batera azaldu zaigu sarri: *Dulcinea y el caballero dormido* bezalako narratioak, Andersenek *Ahate itsusia* ipuinaren aldaera, hitzaurreak... Nolako esperientzia izan da? Giro horrek ez al zaitu apur bat gainzamatatu edo gogaitu?

Gaurkotasunak halako jostetak eragiten ditu, eta jendea gogaitzeko arriskua dago. Baina ez dugu zertan beldur izan; Andersen eta Cervantes handiegiak dira txikikeria horietan harrapatuak izateko. Baina egia da zarata handiegia dagoela liburuaren ingurumarian. Egokiena zera litzateke: liburuaren aurrean kokatzea, baina informaziorik batere gabe, esploratzearen dauden eremuak izango balira bezala. Gaur egun, esaterako, ez dago Kixo-

teren aurrean lasai esertzerik: atzean, ezkutuka, kritiko, irakasle eta filologo mordo bat agertzen da zer egin behar dugun ohartaraziz. Are gehiago: filologoak kasik liburuaren egile bailiran agertzen dira: Urliaren Kixotea, Berendiaren Kixotea... Kixotea, baina, Cervantesek idatzi zuen, eta ez hain zuzen unibertsitateetan irakurria izateko, jende xume-arruntarentzat baizik. Egizu kontu norbait Kixote irakurtzen hasi dela, baina jakin gabe zertan ari den. Imajinatzen al duzu zer nolako harridura hartuko lukeen istorio horrekin topo egitean? Horixe bai liluragarria: halako liburu bat zabaltzea lehenengo aldia balitz bezala, ezertxo ere jakin gabe: ez zein garaitan idatzi zen, ez zein hizkuntzatan, ez itzulia izan den... Istorio bat ilunpetan entzuten denean bezala, modu horretantxe irakurtzeko aukera izatea: iluntasun horretan goxa gaitzan, maite dugunaren albiste ekar diezagun, bizitzen jarraitzeko arrazoiak izan ditzagun...

Zentzu horretan, urteurren horien guztien irakurketa positiboa egiten ari dira. Kasik ez da ahots kritikorik entzun. Nekez entzun dezakegu, esaterako, Andersen-en ipuinek –eta baita *Printze Txikiak* berak ere– bizitzaren halako ikuspegi tragikoa eskaintzen digutela, tristea –erromantikoa?–, eta, Carlo Frabettik esan izan duen bezala, *Pospolo saltzailea* dela horren adibiderik argiena. Zein iritzi duzu?

Bai, Andersen-en gai nagusia tristezia da. Egia da tristezia gizakiaren parte dela eta, horrexegatik, Monterrosok zioenez, historia handi guztiak tristeak dira. Baina esango nuke Andersenengan

badagoela goragoko maila bat, eta haren obrak sentimendu azkengabe horretan –giza tristezia, beldurgarri bezain ezta– arakutzen duela.

Zerk pentsarazten dizu *Sirenatxoa* dela «Andersen-en ipuinik hunkigarriena eta perfektuena, eta baita, seguruenik, inongo gizakik idatzi duen historiarik ederrena»?

Amodioa duzu haren gairik nagusia. Amodioa, abentura gisara, eskaintza gisara, sakrifizio gisara. Haren pertsonaiak daukan guzti-guztia utzi –nortasuna, bizitza, lurraldea–, eta maite duenarengana abiatuko da. Nortasuna –pertsonala, nazionala, soziala– oinarrizko auzia egiten duen mundu honetan, bestearengana zabaltzea ardatz duten historia horiek, ondorioak edozein direla ere, abenturarik handiena irizten diot. Esango nuke ez dagoela bizitzerik dakigunaz eta, ustez, garenaz kanpora irteten eta menturatzen ez bagara, eta horretan da eredugarria *Sirenatxoa*. Gainera arima hilezkorra izan nahi luke. Asmo horretan huts egin ote zuen? Ni ezezkoan nago, izan ere lortu zuen historia betierean izango baita gure oroimenean. Eta istorioen lurralde horrek arima hautatu du munduan agertzeko.

Amodioa eta heriotza uztarturik ageri dira Andersenengan. Amodioa nola edo hala aipatzen da gaur egungo haur liburuetan, baina heriotza guztiz arrotza da, ez balego bezala. Zuk, hala ere, biak aipatzen dituzu *Maitagarrien hiru ipuin* liburuan. Hari horretatik segituz, uste ote duzu, egungo HGL-n, sentimendu erlijiosoa –edo erlijioa– gai baztertuen artean dagoela?

Bai, noski: sentimendu hori niretzat ezinbestekoa da. Baina aipatzen duzun erlijiotasun horrek ez du zerikusirik elizarekin. Kontua ez da gure jokabidea mugarrituko duten arauak egitea, prestutasun eta zabaltze gogo bideratzea baizik. Funtsean, gizakiaren sakoneko zerbaitekin dago lotua: baliotsuaren bilaketa. Horra ipuin guztien gaia, eta hortixe segitzen da altxorra sinbolo gisara



hartzea. Ipuinetako pertsonaiak betiere baliotsuaren bila dabilta, hau da, egiten dugunari zentzua ematen dion horrexen bila. Betidanik harritu izan nau Elizaren zabarkeriak. Istorio liluragarri mordoa dute eta, horiek irakurtzera mugatu beharrean, halako ikasgai presati eta arruntak ateratzen saiatzen dira. Irakurtzen ez dakiten liburuen jabe dira. Poetek egin ohi dutena egitea komeniko litzaieke, hau da, beren istorioak irakurtzera mugatzea. Ezin dut ulertu nola ez diren ohartzen istorio horien kontsolamenduak ez duela parekorik, eta are gutxiago beren prediku antigioalekoen aldean. Baina bada beste gauza bat, kontatzeko arteari estuki lotua, eta prediku horiek inondik ere eskaintzerik ez dutena, hau da, askatasuna, Eckarth maisuak aipatzen zuen zergatirik gabe bizitze hori. Benetako poztasuna, eta poztasunik



gabeko ipuinik ez da, beti-beti zergatirik gabea da. Itun Berrian ageri den ur gainean ibiltze miragarri horren parekoa da. Birjina zuhurren eta ergelen parabola datorkit gogora. Aurrenekoek olioak gordetzen zuten, harik eta ezkontzara eramango zituen senargaia etorri artean; besteek lanparatxoak pizten zuten, gaua eramangarriagoa izan zedin, eta senargaia etortzen zenean, olioak amaitua baitzuten, ezin, bada, hari jarraitu. Zeinen alde egingo genuke? Zuhurren alde eginez gero, ezin gauetz ibiltzearen plazerra dastatu; ergelen alde egiten badugu, akaboa ezkontza... Nago historia handiak bi mundu horiek uztartzen dakitenak direla. Peter Pan pertsonaia birjina ergelen munduko parte da; Wendy, osterera, birjinatxo zuhurra dugu; eta gauza bera gertatzen da On Kixote eta Santxorekin. Noizbait, txantxetan, esan ere egin nuen narratzailea bihotz xaloko maltzurra dela. Eta halaxe dela uste dut. Claudio Magrisek badu *Utopia eta desenkantua* izeneko artikulua bat non horretaz guztiaz mintzatzen den. Hark dioenez, utopia beharrezkoa dugu, baina ez desenkantua baino gehiago. Utopia medio, ametsak eta idealak sinesten ditugu, garenaren aurrean zer izan behar genukeen bilatzen dugu; desenkantuen bidez gure desiren ameskeria posibleak zuzentzen ditugu. Utopiak, berez eta bakarrik, errealitateetik erauzi egiten gaitu, idealen tirania ezartzen digu, edota guztizko egia baztertzailarena. Erregimen komunistak utopian du jatorria, baina baita faxismoak eta, orain, zuen herrian, ETaren terrorismoak, edota hura desenkusatzen dutenen eromenak. Desenkantua zuhurtzia dakarkigu atzera, erakutsi egiten digu ezen, gure ametsak garrantzitsuak badira, denon mundua den espazio horretan bizitzen jakitea ere garrantzitsua dela. Cervantesek bete-betean asmatu zuen: Kixote eta Santxo bateraezin egin zituen. On Kixote, bakarrik, aluzinatu bat izango litzateke; Santxo, osterera, gizonetan baldarrena. Batera, baina, handiak dira, izan. Gehiegikeriak zuzentzen dizkiote elkarri, elkar hartzen dute eta, batez ere, elkarri entzun





egiten diote. Utopia adeitsu ageri da desenkan-  
tuarekin batera; desenkantuak, utopiari esker,  
errealtasunaren konkista zaldunaren benetako  
abentura bihurtzen du.

Diozunez, Andersenek, kasik Borges-en antzera,  
honela omen zioen bere bizitzaren azkenetan: «Be-  
katuetan larriena burutu nuen, sekula ez nintzen zo-  
riontsu izan». Eta, Borges hizpidera ekarri dugunez,  
hark zioen haurrentzat idazten duenak haurkeriak  
harrapa dezakeela... Zer diozu zuk?

Funtsezko bilaketa zoriontasunarena da.  
Esango nuke haur bati historia bat kontatzearen  
benetako arrazoia haren zoriontasuna bilatzea  
dela. Nekez egon daiteke kontaketarako hori bai-  
no arrazoi pisutsuagorik. Gehiago badira, noski:  
eskuzabalak izaten irakastea, natura eta animaliak

maitatzen irakastea, maite dutenengan fidatzen  
irakastea, edo beldurrik ez izaten irakastea. Baina  
ezinbestekoena zera litzateke: entzun bitartean,  
zoriontsu izatea. Horretarako ez bada, zertarako  
kontatu? Haientzat sukaldatzea bezalako zerbait  
da. Elikatu beharra daukatelako hain zuzen ere;  
baina bizkotxoan, kremazko tarten, arrautza  
natillen eta esne frijituaren mundu hori arestian  
arimaren mundutzat jo dudan horren parte dira.  
Bitxia da, baina batzuetan pentsatzen dut arima  
esaten diogun hori gizakiarentzat erlijiotasunetik  
gutxien duen alderdia dela, izan ere arimak zer-  
gatiarik gabe bizitzea maite baitu. Haurkeriaren  
kontu hori dela eta, esan gabe doa hor badagoela  
arriskurik. Baina arriskuak izatea ez da txarra,  
kontua da nola gaingiditzen diren. Gainera, zer ote  
da haurkeriak joa egotea, puerila izatea? Puerilak  
gara haur txiki batekin ibilaldi bat egiten dugu-  
nean edota txakur batekin paseatzen dugunean.  
Puerilak gara norbait maite dugunean, festa ba-  
tera joateko apaintzen garenean edota dantzan  
gabiltzanean, eta hala izango gara, ezinbestean,  
zahartzen garenean. On Kixote puerila da, eta  
halakoak dira Kafkaren hainbat pertsonaia. Are  
gehiago: esango nuke irakurketa bera ekintza  
puerila dela, izan ere irrealtasunaren munduan  
kokatzen baikaitu. Hala izanik, zergatik txarra  
izan? Puerilitatea ez da haurkeriarekin nahasi  
behar. Ezin Peter Pan baino froga hoberik topatu.  
Bizitza errealak ditugu, baina bizitza irrealekin  
maitemintzen gara.

Apaletik zure liburuak eskuratzen ditugunean,  
edizio zainduak topatzen ditugu, ilustrazio ederrak...  
Plazer estetiko hori bilatua al da, liburua sedukzio  
objektutzat jotzen al duzu?

Liburua, oroiz gain, ederra izan behar da, begie-  
tatik barneratu behar da. Garrantzitsua da haurrak  
liburua den bezalaxe ikustea, hau da, objektu ma-  
gikoa ikustea: kutxa miresgarria, jainua kukutua  
duen lanpara, tapiz hegalaria... Objektu horiek  
guztiak, liburuek bezalaxe, izate bikoitza dute.

Objektu arruntak dira, gure egunerokotasunaren zati dira, hala nola diren lanpara, tapiza edo kutxa, baina aldi berean atek dira, iraganbideak, beste munduekin komunikatzen gaituzten tresnak. Baina atek beti-beti izan dira toki sakratuak. Haruki Mueakami idazle japoniarrak –irakurle gisara egin dudana azken deskubrimendu handia– dio ezen txinarrek ate-ateetan lurperatzen zituztela gerlari zaharren hezurak, eta gero zakurrak sakrifikatzen zituztela, haien odolak gerlariak biziarazi eta, hartara, hobeki zaindu zituzten hirirako sarbideak. Ateek mundu desberdinak komunikatzen dituzte, eta horixe da literaturaren egitekoa. Eta horretan badu erlijioaren antzik. Nola edo hala, liburu handi guztiek badute zerbait sakraturik. Eta izaera ho-

rrek hain zuzen ere mundu urrunak uztartzearen dohainean du jatorria: bizien eta hilen mundua, helduena eta haurrena, gizakiena eta animaliena, gizonarena eta emakumearena... Eta arima hori bera da, geure arima, bidaia horiek egiten dituen. Esan genezake benetako liburuak direla arimaren ibileren memoria gordetzen dutenak. Adriano enperadoreak esana da arima maizter gutiziatsua dela. Historiak kontatzen baditugu, zeragatik da, «arima ttiki errari eta ezti» hori munduan lagun izan dezagun. Edo, hobeki esatearren, historiak dira arimak gure artean jarraitzen duen seinalea. Munduak gauzak kontatzeari uzten baldin badio, gure maizterra joan den seinale...

